

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 529/2020 Erabakia, azaroaren 10ekoa. Arabako Foru Aldundiak Caja de Ahorros de Vitoria y Álava – Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa banku fundazioaren patronatuan duen ordezkaritza berritzea

Foru Gobernu Kontseiluari dagokio Arabako Foru Aldundiaren ordezkariak izendatzea organismo eta erakunde publiko zein pribatuetan, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoarenak, 8. artikuluko 9. eta 10. paragrafoetan xedatutakoarekin bat etorritz.

Beraz, ezinbestekoa Caja de Ahorros de Vitoria y Álava–Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa Fundación Bancariaren Patronatuan Arabako Foru Aldundiak izango duen ordezkaritza berritzea.

Horregatik, Diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Joaquín Esteban Sánchez izendatzea, Caja de Ahorros de Vitoria y Álava–Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa Fundación Bancaria izango denaren Patronatuan kide jarduteko, Arabako Foru Aldundiaren ordezkartzan, Vital Kutxako erakunde fundatzaile den aldetik. (Foru Administrazioaren Partaidetzako Erakundearen Erregistroan, 349 zenbakia), Angel Lapuente Montororen ordezkari.

Bigarrena. Erabaki hau jakinaraztea Caja de Ahorros de Vitoria y Álava–Araba eta Gasteizko Aurrezki Kutxa Fundación Bancariaren patronatuari.

Hirugarrena. Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko azaroaren 11

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen eta Komunikazioaren zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN